d) Lan-erregimenpean ihardungo dute, ez egun osoan eta epealdi jakin batean.

*4. atala.*– Bateragarritasunerako baimena lortu ahal izateko behar-beharrezkoa izango da aurreko atalean aipatzen diren baldintzak zehatz-mehatz betetzea. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaritzak txostena eman beharko du aldez aurretik.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko baimena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitartzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko irailak 6.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
FERNANDO BUESA BLANCO.

Lehendakaritza, Lege Araubide
eta Autonomi Garapenerako sailburua,
JOSEBA M. DE ZUBIA Y ATXAERANDIO.

d) Se prestará en régimen laboral, a tiempo parcial y con duración determinada.

*Artículo 4.*– La autorización de la compatibilidad quedará condicionada al estricto cumplimiento de las condiciones a que hace referencia el artículo anterior, a cuyo efecto deberá previamente emitirse informe por la Dirección de Formación Profesional del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se autoriza al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 6 de septiembre de 1994.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
FERNANDO BUESA BLANCO.

El Consejero de Presidencia, Régimen
Jurídico y Desarrollo Autonómico,
JOSEBA M. DE ZUBIA Y ATXAERANDIO.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 3448

AGINDUA, 1994ko irailaren 6koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, elizako agintariek Euskal Autonomi Elkarterako ezarri duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako erlijio katolikoa alorraren kurrikuloa argitaratzen duena.

Erregeren ekainaren 14ko 1007/1991 Dekretuz ezarri ziren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako nahitaezko irakaskuntzak; irakaskuntzok, hezkuntzako administrazioek euren lurralde eremuetarako zehaztu behar duten kurrikuloa osatuko dute. Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez, ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuz (abuztuaren 17ko EHAA) finkatu ziren. Dekretu horretako 9. atalaren 3. idazatian ezartzen denez, elizan eskuduntza duen agintariak jarriko du erlijio katolikoa alorraren kurrikuloa.

Ondorioz, elizan eskuduntza duen agintariak erlijio katolikoaren kurrikuloa bidali ondoren eta ekainaren 21eko 213/1994 Dekretuko azken xedapenetatik lehenengoak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari ematen dion baimenaren arabera, honako hau

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 3448

ORDEN de 6 de setiembre de 1994, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se da publicidad al currículo del área de Religión Católica de la Educación Secundaria Obligatoria establecido por la autoridad eclesiástica competente para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Real Decreto 1007/1991, de 14 de junio, estableció las enseñanzas mínimas correspondientes a la Educación Secundaria Obligatoria que deben formar parte del currículo que las Administraciones han de definir para sus ámbitos territoriales respectivos, y que el Decreto 213/1994, de 21 de junio (BOPV del 17 de agosto) fijaba para la Comunidad Autónoma del País Vasco. Por su parte, el apartado 3 del artículo 9 del citado Decreto determina que el currículo del área de Religión Católica será el establecido por la autoridad eclesiástica competente.

Por ello, una vez recibido de la autoridad eclesiástica competente el currículo del área de Religión Católica y en virtud de la autorización que la Disposición Final Primera del Decreto 213/1994, de 21 de junio, confiere al Consejero de Educación, Universidades e Investigación,

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Euskal Autonomi Elkarteko elizan eskuduntza duen agintariak ezarritako kurrikuloa argitaratzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako erlijio katolikoa alorrari buruzkoa izan eta agindu honen eraskin lez azaltzen dena hain zuzen ere.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1994ko irailak 6.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
FERNANDO BUESA BLANCO.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAMAILA

ERLIJIO KATOLIKOA

1. SARRERA

Erlijio arloak ahalbideratzen duena, gizabizitzaren azken esanahiaren ingurura biltzen diren errealitate horien ezagupena da.

Izan ere, giza jakinduriaren hesparru nabarmen bat bada, narrazioen bitartez mundu-ikuspegi orokor baten irudiak jasotzen dituena; hainbat zeinu, sinbolo eta errito edo ohikune esangarriren gordailu dena; bai sinismen aitorpenen eta bai jokabiderako arrazoien berri emanten duena; areago oraindik, gaur bertako hainbat erakunde edo instituzio eta, berdin ere, hainbat ertigintza ikusgarri barne hartzen dituena.

Bizitzaren eguneroko martxan gizonak beti ere traszendentziarako joera erakusten duela onartuz, aipaturiko esparru hori berea egiten duen ezagupen arloak, zera hartzen du eginkizuntzat: norberaren nahiz guztion sakoneko galderei erlijioak bideratzen dizkien erantzun eskeintzak aurkeztea. Horretan datza arlo honen berezitasuna.

Gizabizitzaren sakoneko galderak eta kezkak pertsona guztioi ezinbestean dagozkigula, inolaz ere ukatu ezingo dugun gauza da. Halaz ere, bizitzaren esanahiari buruzko azken galdekizun horiek sortzen duten kezka ez da beti berdina izaten. Dakigunez, urteak aurrera egiten duen neurrian, gero eta sakonago sentitzen ditugu.

Eskolako heziketa maila eta adinen kasuan, begien bistan dago galdera eta kezka horiek duten garrantzia adinaren araberakoa dela. Ondorioz, kontu haundiz aztertu beharko ditugu ikasleengan, bai ezagupenaren eboluzio maila desberdinak, bai moralaren arloko garapenarenak ere, eta bereziki erlijiotasunaren beraren

DISPONGO:

*Artículo único.*– Dar publicidad al currículo del área de Religión Católica para la Educación Secundaria Obligatoria, establecido por la autoridad eclesiástica competente para la Comunidad Autónoma del País Vasco, que se incluye en el Anexo a la presente Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de setiembre de 1994.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
FERNANDO BUESA BLANCO.

EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA

RELIGIÓN CATÓLICA

1. INTRODUCCIÓN.

El área de Religión está constituida por el conjunto de aquellas realidades constatables que versan sobre el sentido de la vida humana, fundamentalmente religada a lo trascendente.

A través de narraciones, signos y símbolos, expresiones estéticas, ritos cultuales y costumbres, modelos y motivaciones para el actuar, instituciones, formulaciones de fe que buscan y brindan plausibilidad racional, interpretaciones globales de la realidad y otros elementos de similar referencia, se da a conocer efectivamente un determinado ámbito de saberes humanos, que resulta identificable por su orientación al tratamiento de las cuestiones decisivas en torno a la condición humana tanto en su relevancia individual, como en su dimensión social.

Tales cuestiones afectan y preocupan indefectiblemente a las personas, si bien en distinta intensidad, según sean los diferentes estadios de la vida.

Por lo que respecta a la edad escolar, es evidente que tal espacio de interrogación se va configurando de forma progresiva en conformidad con las diversas etapas educativas. Por esta razón, habrán de ser tenidas en cuenta las distintas fases evolutivas de los alumnos, tanto en lo que afecta a la dimensión cognitiva, como a

garapenaldiak.

Nolanahi ere, azken esanahi baten beharra uste baino maizago azaltzen da eskolako neska-mutilen bizikizunetan, batez ere Bigarren Hezkuntza mailako ikasleengan. Hona hemen hauetako bizikizun batzu: konfidantza, beldurra, maitasuna, gaitzespena, itxaropena, adiskidetasuna, poza, errua, barkamena, oinazea, zoria, erantzunkizuna, kezka, porrot egitea, jolasa, harridura, bizitzaren sorburua edo hasiera argitu nahia, heriotza, dantza, jaia, liturgi ospakizuna, otoitza...

Bestetik berriz, bada hainbat gizarte egoera, erantzukizunezko jokabidea eskatzen duena. Jokabide hori argitzeak lana ematen digu helduei eta, zer esanik ez, gizarteratze-bidean aurrera doazen gazteei. Hona ikasleek ere gure inguruan eta gizarte zabalean bizi dituzketen egoerak: bortizkeria, haserrea, zuzentasuna, adiskidetzea, gerra, bakea, aurrerakuntza, etorkizuna eta, laburbilduz, gizarte osoaren bilakabide zalantzagarria: inoiz ez bezalako aukerak ematen dituen aldi berean, bai gizonarentzat eta bai inguruarentzat ere konponezinak izango liratekeen kalteak sortzen baititu.

Esandakoak kontutan harturik, «Erlijio Katolikoa» izeneko arlo konfesional honen ekarpen berezia, honako hau dela esan daiteke: aipatutako giza galdera horiek kristau mezuarekin harreman bizian jartzea, mezu horren barne muina beti ere argi eta garbi adierazia beharko duelarik izan eta azken esanahi baten gisa azaldua eta eskeinia.

Hezkuntza sistemaren xede gorenak gogoan izanik, zera izango litzateke Erlijio Katolikoaren irakaskuntzak duen helburu nagusia: kristautasuna ulergarri egitea eta honen ezagupen esanguratsu eta funtzionala eraikitzen laguntzea, ikasleek honela fedea eta kultura elkarrekin uztartzeko gauza izan daitezen.

Aipatu berria dugun asmo nagusi hori eskolaren zereginetatik sortzen da zuzen-zuzenean. Ondorioz, gizatasun osoko heziketa integralaren ikuspegitik (LOGSE 1 art.,1.a), nahiz ikasleak erlijio askatasunean hezitzeko agindua kontutan izanik (LOGSE 1 art.,1.b), zera esan daiteke: Erlijio Irakaskuntza, berez, eskolari dagokiola benetan!.

Ondorioz, askatasuna bera ere barne duen eskeintza hau deneiuori zuzen dakieke, ez bakarrik kristau atxikimenduzko gaztetxo eta gazteei, baizik eta edozein ikasleri ere, eta bereziki Erlijio Katolikoaren irakaskuntza eskatuko duten gurasoen seme-alabei.

Hezkuntza sistema barruan zer ikasi erabakitzeko orduan, hiritarren gizarte partizipazioa eta gizarte hobekuntza bideratzen duten ezagupen-arloak garrantzi berezia erakutsi dute.

Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez, agerian

la del desarrollo moral y a la de la maduración propiamente religiosa.

Con todo, vivencias que reclaman un último sentido, cuestionan a los alumnos y alumnas desde sus primeros años, como lo dan a conocer sus propias experiencias de confianza, miedo, amor, rechazo, esperanza, amistad, gozo, culpa, perdón, dolor, suerte, responsabilidad, fracaso, admiración, entusiasmo, celebración festiva, curiosidad por el origen de la vida, cuestionamiento del por qué de la muerte y similares.

Y no sólo es el ámbito privado el que presenta vivencias de denso contenido humano. También la experiencia social presenta a los alumnos situaciones, hechos y dilemas que, ante la apelación ineludible de actuar recta y responsablemente, requieren criterios orientativos. Precisamente nuestro entorno los confronta a menudo con acontecimientos de violencia y crispación, y así mismo con deseos de justicia y gestos de reconciliación, preocupaciones por la guerra, por la paz, por el progreso, por una visión de futuro, y por la constante zozobra ante una evolución ambivalente de la sociedad con nuevos retos y posibilidades, pero con costos humanos y ecológicos aparentemente inevitables.

La aportación específica del área de Religión Católica, en cuanto modalidad curricular de carácter confesional, es precisamente la de ayudar a establecer una mutua correlación entre tales interrogantes y el núcleo fundamental del mensaje cristiano, expresado en su contenido esencial y brindado como oferta de sentido. De este modo la enseñanza religiosa escolar abre al alumno, en primer lugar, a la problemática del sentido último y profundo de la vida (OPERE, 84), problemática que no es abordable desde las demás líneas de aproximación a la realidad, propias de otras ciencias.

Desde la perspectiva de las finalidades que rigen el Sistema Educativo, la intención de la enseñanza escolar de la Religión Católica, es la de clarificar el hecho religioso cristiano y contribuir de ese modo a la construcción, por parte de los alumnos, de un conocimiento significativo y funcional del mismo, en orden al establecimiento de una síntesis de la fe con la cultura actual.

De este modo, la intención señalada se da a conocer como rigurosamente escolar y permite una aportación específica a las finalidades educativas del pleno desarrollo de la personalidad de los alumnos (LOGSE art.1,1.a) y de la capacitación de los mismos para el ejercicio responsable de su libertad religiosa (LOGSE art.1,1.b).

Por lo mismo, el ofrecimiento del área resulta legitimable, no sólo en referencia a niños y adolescentes de identificación cristiana, sino a todos los interesados en general y en concreto a aquellos alumnos y alumnas, para los que sus padres hayan solicitado la enseñanza de la Religión Católica.

La inclusión de áreas de conocimiento dentro del Sistema Educativo responde a demandas sociales y culturales que tienden a garantizar la capacidad de participación de los ciudadanos en la dinámica de la sociedad y posibiliten el mejoramiento de la misma.

Junto con ello resalta, por lo que se refiere a la

dago intentzio jakin batek izan duela eragina: euskal gizartearen eraikuntza integrazio sozialarekin uztartu beharrak.

Aipaturiko iturburu soziologikoaren ikuspegitik, erlijio arloa kezka eta eginkizun horiei tratamendu zabala zuzenean ematen dien eremu bezala agertzen zaigu. Honekin batera, gure Herriaren eta Europa osoaren bilakabidean ere, erlijiotasuna gaur arte sustrai eta bultzagarri ukaezina izan denez gero, gure kultur ondarearen ezagupena behar bezala ziurtatzerakoan, aipagarria da erlijio arloaren eskeintzak duen garrantzia.

Arlo honetan biltzen diren ezagupen, prozedura, jarrera eta balioak, Bibliaren tradizioan dute beren sorburua eta, aldi berean, eliz elkarteak mendeetan zehar gaurdaino eginik duen biblia-interpretapen bizian.

Kristau fedea, bestetik, bere itxaropenaren arrazoibideak azaldu nahiean, hasiera-hasieratik saiatu da sineste horren arrazoimenezko alderdiak argitzen eta ulergarri egiten. Etengabeko gogoeta sakon honen ondorio dugun Elizaren ekoizpen teologikoa, metodo guztiz kontrolagarriez landua, hori dugu izan, erlijio arloaren iturburu epistemologikoa, batipat Bigarren Hezkuntza maialarako proposatzen diren edukinei dagokionez.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionean, iturri psikologikoak ikasleen garabidea kontutan izatea eskatzen du, batipat neska-mutilek «operazio konkretuen» mailatik «eragiketa formalen» mailarako iraganbidea dela hemen arrazoi. Aintzakotzat hartzekoak dira, aldi berean, gaztetxo eta gazteek adin tarte honetan pixkanaka ematen dituzten eboluziozko pausoak: norbere barruan biltzeko gaitasunaz jabetzea, eta areago oraindik, norberetasun autonomo eta libre bat lortzea, batetik interes zehatz eta sentimendu berriez hornitua eta bestetik gizartera, lanbideetara eta bizitzari esanahi betea eskeini dakiokeen erlijiotasunera irekia dagoena.

Aurreko etapan, pentsamendua ezinbestean begien aurrean dagoenarekin eta egintza konkretuekin estu-estu loturik bazegoen ere, oraingoan ideia eta kontzeptu orokorragoak nahiz dedukziobideak erabiltzea gero eta posibleago izango du.

Guzti hori kontuan izan beharko da, Erlijio Irakaskuntzaren didaktika maila honetan bideratzeko orduan.

Iturri pedagogikoak ikasketa esanguratsuen eraikuntza ziurtatu beharra eskatzen du.

Erlijio irakasleek, etapa desberdinetako kurrikuloak bata bestearekin parekatzerakoan, garbi ikus dukete hauen mailaketa progresiboki eratua izan dela. Nabari zaien jarraipenezko progresioak ikastetxe eta ikasgeletarako hartu beharko diren erabakiak jasotzeko marko egoki bat osatu nahi dute. Era horretan, eta ikasleen garapen-maila desberdinak aintzakotzat hartzen dituztela, irakasleek gaztetxoen erlijio pentsamenduaren eraikuntza ziklo bietan ahalik eta egokien programatzeko beta izango dute.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzamaila honetako edukiek erlijioak berezko dituen «hizkuntza» ezagunen egitura mantentzen dute, hau da bibliarena, kultoare-

Comunidad Autónoma Vasca, la preocupación por el proceso de construcción de identidad colectiva, en armonía con la integración social.

Desde esta fuente sociológica, el área de Religión se da a conocer como uno de los espacios en los que el tratamiento de tales preocupaciones resulta prioritario, al tiempo que permite el conocimiento de una dimensión constitutiva del patrimonio cultural de nuestro pueblo así como de la historia europea en su integridad, en cuyas raíces y desarrollo subyace de modo indiscutible el hecho religioso.

Conocimientos, procedimientos, actitudes y valores integrados en el área de Religión tienen su origen último en la fuente bíblica y en la interpretación viva que de la misma ha hecho la comunidad eclesial, a lo largo de los siglos, hasta la actualidad.

En el intento de dar razones de la propia esperanza, la fe cristiana, desde su origen, ha buscado la plausibilidad racional y comunicativa de sus posicionamientos. Fruto de esta reflexión ininterrumpida es precisamente su producción teológica, rigurosamente científica en sus métodos, cuyas diversas ramas constituyen la fuente epistemológica de la que provienen los saberes propuestos por el área de Religión, especialmente en la etapa de Educación Secundaria Obligatoria.

Por lo que se refiere a la Etapa en cuestión, la fuente psicológica invita a tener en cuenta el proceso evolutivo de los alumnos y alumnas en su paso, de la fase operacional concreta, a la formal. Impulsa igualmente a valorar el logro de la subjetividad y el descubrimiento de una interioridad diferente, más libre y menos dependiente, configurada por intereses y sentimientos nuevos, y por una mayor apertura a lo social, a lo profesional y a lo auténticamente religioso.

Si en la etapa anterior el pensamiento estaba íntimamente ligado a fenómenos perceptivos y a actuaciones concretas, ahora va siendo ya posible operar con ideas y conceptos cada vez más generales y acceder poco a poco a explicaciones deductivas.

Todo ello habrá de ser tenido en cuenta a la hora de proyectar didácticamente la enseñanza escolar de la Religión en este ciclo de la adolescencia.

La fuente pedagógica insiste en la necesidad de asegurar la construcción de aprendizajes significativos.

Los profesores de Religión, al comparar los correspondientes currículos de las diversas etapas, habrán podido darse cuenta de la progresiva gradación de los mismos. La sucesión de continuidad que se ha pretendido establecer, permitirá que ulteriores concreciones de centro y de aula consigan programar eficazmente, situaciones de enseñanza y aprendizaje adecuadas para la construcción del pensamiento religioso en cada uno de los ciclos de la Educación Secundaria Obligatoria.

Los contenidos del área de Religión en Educación Secundaria Obligatoria, mantienen la estructura fundamental de los diversos lenguajes propios del pensa-

na, moralarena eta arrazoizko irakaspen edo dotrinarena. Etapa honetan, erlijio-ezagupenak argumentazioz oinarritzeko, gogoeta bidez aztertzeko eta aldagai guztiak miatzeko beharrizan eta ahalmenarekin ados legokeen sistematizazio maila apala bainan argia.

«Kulturarekin elkar hizketan ari den fedea» izeneko blokeak, beste alor batzuk eskaintzen dituzten jakinbideetan fedea ere txertatzeko aukera ematen du.

Multzo historikoak etapa honetan «Gizarte zientziak, Geografia eta Historia» izeneko arloan ikasiko diren hainbat gaiekin harreman estua duela, ezingo da ukatu.

Edukin multzo oso batek beste erlijioei zor zaien begirunea agertu nahi luke. Arloaren ikuspegi konfesionalak ez du eragozpen izan behar, erlijiozko errealitate osoa kontutan hartu ahal izateko.

Azken finean ordea, erlijiotasuna zer den ulertu ahal izango da gizabizitzari traszendentziarako joera ezagutzen zaion neurrian eta gizonaren azken galderei leku egin eta entzutea ematen zaien heinean. Horrengatik ere, ezinbestekoa zen erlijio sentikorta-sunaren inguruan, ezagutza, prozedura eta balio bereziak barne hartzen dituen multzo berri bat osatzea.

Ondorioz, etapa hau egituratuko duten edukin blokeak honako hauek izango dira:

1. GIZAKIA MUNDUAN
2. BILA GABILTZAN HARTAZ ERLIJIOEK DIOTENA
3. MISTERIO EZKUTUAREN AGERTZEA JESUKRISTORENGAN
4. FEDEDUNEN ELKARTEA HISTORIAN ZEHAR
5. GURE JOKABIDEAK GIDATZEN DITUEN FEDEA
6. LITURGIAN OSPATZEN DEN FEDEA
7. ARGIBIDEAK EMATEN DITUEN FEDEA
8. KULTURAREKIN ELKAR HIZKETAN ARI DEN FEDEA

Erlijio-arloak, bere bereak dituen edukinen tratamenduaren bitartez bere Errealitatea eta inguru fisikoa «Jainkoak egina dela» baloratzeak, hala nola ondare kulturalaren barruan dauden osakin erlijioso kontaezin guztien identifikazioak, ingurunearen zaintza eta hobekuntzan aktiboki laguntzen aportazioa bideratzen du gizarteak proposatutako gaitasun jakin horiek lortuak izan ahal daitezen.

Era horretan arlo honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburu orokorrei ekarpen espezifikoa egiten die.

Pertsonaren Biziari -Jainkoaren dohain bezala azalduz- erlijioak ematen dion oinarriketa, hala nola pertsonari kristau mezuak ematen dion balioa, erabat

miento religioso (bíblico, cultual, moral y doctrinal), alcanzando en esta etapa el grado de sistematización acorde con la necesidad y capacidad de argumentar, reflexionar, analizar y explorar variables.

A ese conjunto estructural de cuatro bloques, configurados por los lenguajes, a través de los cuales, lo religioso se da a conocer socialmente, se ha añadido otro dedicado a cuestiones fundamentales en el «diálogo entre fe y ciencia, fe y cultura», cuya intención es la de posibilitar una integración de la perspectiva religiosa dentro de los demás saberes proporcionados por las otras áreas.

El bloque histórico aparece esta vez en consonancia con el tratamiento del área de Ciencias Sociales, Geografía e Historia.

Un nuevo bloque suplementario está dedicado a la recepción respetuosa de las demás religiones, de modo que el tratamiento confesional sea al mismo tiempo acorde con la intención escolar de posibilitar un conocimiento íntegro de la realidad, en nuestro caso, de la realidad religiosa.

De cualquier modo, lo religioso únicamente resulta significativo, si la condición humana se da a conocer como una existencia marcada por interrogantes, abierta a la trascendencia y capaz, por ello, de religiosidad. Este aspecto de sensibilización ha sido, asimismo, configurador de un sector específico de conocimientos, procedimientos y actitudes.

Por todo ello, los contenidos que se derivan tanto de las fuentes del currículo como de los objetivos generales de etapa y de área, se agrupan y diferencian en los ocho bloques siguientes:

1. El HOMBRE EN EL MUNDO
2. BUSQUEDA HUMANA Y EXPERIENCIA DE LAS RELIGIONES
3. LA AUTOMANIFESTACION DEL MISTERIO EN JESUCRISTO
4. LA COMUNIDAD DE FE Y SU HISTORIA
5. LA FE TESTIMONIADA EN EL ACTUAR DE LA VIDA
6. LA FE CELEBRADA EN LA LITURGIA
7. LA FE DADA A CONOCER EN SU FORMULACION DOCTRINAL
8. LA FE EN DIALOGO CON LA CULTURA

A través de los contenidos y mediante la promoción de las capacidades propuestas, el área de Religión efectúa su contribución específica a los objetivos de etapa en Educación Secundaria Obligatoria.

La fundamentación religiosa de la vida humana concebida como don y quehacer, así como el conocimiento del mensaje cristiano, sobre el valor de la persona, con-

lagungarri gertatzen dira nork bere nortasuna aintzat hartuz oso-osorik garatzeko eta norberak bere buruaren irudi baikorrago eta zehatzago bat eraiki ahal izateko.

Justizia, elkartasun eta bakeari buruzko kristau jarrerak sustatzeak, besteekiko harreman orekatu eta konstruktiboak ezarri beharra dakarte, lagun urkoa maitasunez onartzeko bideak irekiz eta diskriminazio mota guztiak gaitzetsiz.

Gizona, mundua eta historiari buruz kristautasunak duen ulerkera aztertzeak, bide ematen du epai eta irizpide pertsonalak izateko eta autonomiaz eta ekimenez aritzeko, norbere iritziekin bat ez datozenekin ere elkarrizketa bideak irekiz.

Errealitateak eta inguruneak begirunea eta miresmena merezi duten sorkuntza lez duten baloreak, eta kultur ondarearengan erlijio inguruko gorabeherek duten eraginak, ingurunea zaintzea eta hobetzea dakarte, era berean kultur ondarea onartzeko eta apreziatzeko bideak eskeintzen dituela.

Bibliaren ulermenerako irizpideen ezagupen zehatz eta funtzionala, ahozko eta idatzizko mezuak jabetasunez interpretatzea eta ekoiztea eskatzen duen helburu ezagun baten mailako eginkizun bat da.

Azkenik, kristau mezuaren funtsezko edukien sintesi edo laburbilduma egoki bat lortzeak, gure gizartearen ordenamenduan tipifikaturik dagoen erlijio askatasuna erantzunkizunez betetzeko behar diren arrazoizko oinarriak eskaintzen ditu.

2. HELBURU OROKORRAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza mailan Erlijio Katolikoaren irakaskuntzak ikasleei ondorengo gaitasun hauek garatzen laguntzea izango du helburu:

1. Entzuten jakitea, pertsonen nahiz gertakizunen aurrean adi egotea eta norberaren edo besteen bizikizunen sakonaz konturatu ahal izateko, isiltasuna aintzat hartzea.

Aldi berean, azken esanahiari buruzko giza galdekizunei leku egitea.

2. Munduari, gizabizitzari eta historiari buruz kristau fedeak, beste erlijioek baita ideologia garrantzitsuenek ere eskeintzen dituzten ikuspegiak aztertzea eta elkarrengandik bereiztea.

Horrekin batera, hauetako ulerkera bakoitzak aldietan zehar gaur arte izan duen eragina balioztatzea, kristau ikuspegiaren bereizgarriak izendatzea eta egiazko elkarrizketaren giroan arrazoibide horiek aditzera emateko gauza izatea.

3. Historian zehar, gizakion elkarbizitzarako guztiz garrantzitsuak diren arloetan erlijioek bideratu izan dituzten ekarpenak kontutan hartzea. (adibidez: norberatasunaren eraikuntza, gizabidezko portabidearen argiketa, gaitzaren eta oinazearen gainditzea, gizartearen elkartasuna, izaerak orokorrean duen esanahiaren ager-

tribuyen notablemente al aprecio y desarrollo integral de la propia personalidad y ayudan a formarse una imagen positiva y ajustada de sí mismo.

La promoción de actitudes cristianas referentes a la justicia, la solidaridad y la paz, fomentan el establecimiento de relaciones equilibradas y constructivas con los demás, facilitando la aceptación de los otros y rechazando todo tipo de discriminaciones.

El análisis de interpretaciones que el cristianismo presenta acerca del hombre, del mundo y de la historia, permite elaborar juicios y criterios personales y actuar con autonomía e iniciativa, entablando relaciones de diálogo con opciones diferentes a la propia.

El valor de la realidad y del entorno físico en cuanto «creación» merecedora de respeto y admiración, así como la identificación de los innumerables componentes religiosos dentro del patrimonio cultural, propicia la contribución activa a la conservación y mejora del medio físico, al tiempo que permite apreciar y disfrutar del patrimonio cultural.

El conocimiento diferenciado y funcional de criterios básicos de interpretación bíblica, es concreción del objetivo de interpretar y producir con propiedad mensajes orales y escritos, propio de las áreas de la comunicación oral y literaria.

Por último, la organización a nivel de síntesis, de los contenidos esenciales del mensaje cristiano, constituye la base razonable para el ejercicio responsable de la libertad religiosa como una de las libertades tipificadas en el ordenamiento de nuestra sociedad.

2. OBJETIVOS GENERALES

La enseñanza del área de Religión Católica, en la etapa de Educación Secundaria Obligatoria, tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las capacidades siguientes:

1. Saber escuchar y prestar atención a personas y acontecimientos, así como estimar el silencio a fin de percibir la hondura de experiencias y vivencias tanto propias como ajenas.

Al mismo tiempo, asomarse al planteamiento de interrogantes que cuestionan y reclaman un sentido último del ser humano.

2. Analizar y diferenciar interpretaciones propuestas por la fe cristiana, otras religiones e incluso ideologías relevantes, acerca del mundo, del hombre y de la historia.

Por lo mismo, valorar la influencia histórica y actual de cada una de ellas, nombrar elementos específicos cristianos y ser capaz de darlos a conocer en situaciones de diálogo constructivo.

3. Hacerse cargo de aportaciones que las religiones han prestado a lo largo de la historia en dimensiones constitutivas de la convivencia humana (p. ej.: construcción de identidad, orientación en el actuar, superación del mal y del dolor, integración social, visión de sentido de la realidad global, resistencia y protesta con-

kundea, giza-kontrakoak diren egoera guztien aurkako jarrera eta ekintza...)

Bide batez erlijioak aintzat hartzea, Jainkoaren guztion salbamenerako asmoak eraginak direlako, eta nahi salbagarri honen burutzapena Jesukristo bera denez, kristau fedea preziatzea, kristautasunaren egintzak eta mugapenak gogoan izanik.

4. Kristau mezuaren barne muinaz jabetzea, mezu honen eduki nagusiak Jesukristoren bizitza, heriotza eta biztueratik antolatuz.

Aldi berean, salbamen kondairako gai eta gertakizun nagusienak barne dituen ikuspegi orokor laburbiltzailea ziurtatzea, Idazteuna eliz fedearen liburua denez preziatzea eta irakurtzerakoan Bibliari dagozkion ulerkera-printzipio oinarrizkoenak erabiltzea.

5. Eliza unibertsalak hasieratik gaur arte izan dituen une eta bilakaera garrantzitsuenak ezagutzea, eta horrela bere eliz kontzientzia, eginkizuna eta izatea aurkitzea.

Horrekin batera, Elizak Euskal Herrian urratutako bidea ezagutzea, Eliza honek garai bakoitzean egindakoak balioztatzea eta gaur bertan ere hemen duen eraginkortasuna eta jarduna aztertzea.

6. Elizaren izanaz (ez bakarrik izenaz!) jabetzea, Jainkoaren guztionganako maitasunaren ezaugarri baita eta gizadi osoaren elkartasun eragile; honekin batera bere egintza-maila oinarrizkoenak aztertzea: fedearen testigantza, itxaropenaren ospakizuna eta guztionganako, batez ere behartsuenganako, maitasuna.

Aldi berean, Eliza etengabe biziberritzeko beharra duen elkarte gisa ulertzea, Jainko Erreinuaren ernamuin eta kimu delarik ere, «Erresuma berriaren» irrikan bizi baita eta honen burutzapenaren itxaropenean.

7. Eskuko zaigunaz haruntzako errealitatearekin ditugun harremanak adierazten dituzten sentipenak, sinesmenak eta erabakiak azaltzen jakitea, bakarka bezala elkartean ere.

Berdin ere, eliz liturgiaren ospakizun-maila eta sakramentuen eraginkortasuna behar bezala ezagutu eta aintzakotzat hartzea, eta egiazko erlijiotasunak gizaldietan zehar izan dituen adierazpen era desberdinak norbereganatzen jakitea.

8. Norbere buruaren jabe izanez jardun, norberetasunaren alderdi onak eta mugapenak ezagutzea eta onartzea, eta nortasun librea eta orekatua, egiazko harremanak izateko gai dena, lortzen ahalegintzea.

Horregatik ere, kristautasunak giza duintasuna eta norberaren balio ordezka ezina oinarritzerakoan ematen dituen arrazoiak estimatzea.

9. Pertsona eta talde desberdinekin harremanak izatea, kristau jatorriko motibazioak elkarren arteko lan eta ekintzen bultzagile bihurtuz, eta areago oraindik, elkarlaguntzaren, istilu-azterketa zuzenaren eta adiskidetzerako joeraren eragile.

Aldi berean, kristau mezuak elkarbizitza zuzenbidean, tolerantzian, solidaritzan eta pakean moldatzeko

tra situaciones inhumanas...)

Al propio tiempo, estimar las religiones desde la voluntad salvífica universal de Dios, reconocer la culminación de la misma en Jesucristo y valorar así la propia fe cristiana, siendo consciente de sus realizaciones y de sus limitaciones.

4. Identificar el núcleo del mensaje cristiano organizando sus contenidos esenciales a partir del acontecimiento de la vida, muerte y resurrección de Jesucristo.

Por lo mismo, acceder a un conocimiento sintético de la Biblia que permita organizar sus temas y procesos más importantes, apreciar la Sagrada Escritura como libro de la fe de la Iglesia y aplicar a su lectura, criterios básicos de interpretación bíblica.

5. Identificar los hitos y evoluciones fundamentales que presenta la trayectoria de la Iglesia universal a partir de sus comienzos y descubrir así su conciencia, su misión y su identidad eclesial.

Igualmente, situar dentro de esa trayectoria la realidad histórica de la Iglesia en Euskal Herria, valorar sus aportaciones en los distintos momentos y analizar sus formas de presencia efectiva en el momento actual y en el entorno más inmediato.

6. Comprender el significado de la Iglesia como signo del amor de Dios en el mundo e instrumento de unidad de todo el género humano, y analizar sus funciones fundamentales en el anuncio y testimonio de la fe (testimonio), en la celebración de la esperanza (liturgia) y en el amor a todos, especialmente a los más necesitados (servicio).

Igualmente, considerarla como una Iglesia en constante proceso de renovación y purificación, que en su misión de anunciar a todos el Reinado de Dios, es germen y principio de ese Reinado al mismo tiempo que anhela y espera la consumación definitiva del mismo.

7. Expresar individual y colectivamente sentimientos, convicciones, opciones que significan relación con la realidad trascendente.

Al mismo tiempo, conocer y estimar debidamente la dimensión celebrativa de la liturgia de la Iglesia y su virtualidad sacramental, así como las diversas modalidades de expresión de religiosidad auténtica a lo largo de los tiempos.

8. Actuar con autonomía conociendo y aceptando cualidades y limitaciones propias y esforzarse en la formación de una personalidad equilibrada, libre y capaz de relaciones constructivas.

En este mismo orden, apreciar la visión cristiana de la persona y el fundamento de su dignidad y valor insustituible.

9. Relacionarse positivamente con personas y grupos diversos, transformando motivaciones netamente cristianas en actuaciones de colaboración participativa, de justo tratamiento de conflictos, de comportamiento prosocial y de reconciliación.

Por lo mismo, apreciar la aportación específica del mensaje cristiano en orden a la convivencia en justicia,

bidera ditzazkeen ekarpen bereziak aintzakotzat hartzea.

10. Kristaulegezko diren jokamoldeei bide ematen dieten motibazioak eta inguruan sumatzen diren beste balio eta jokamoldeak elkarrekin konparatu, eta norbanakoarenak nahiz gizartearenak diren egoera eta gertaerei buruz iritzi pentsatuak ematea.

Honen jarraipenean, aske eta erantzukizunez erabakiak hartzea eta erabakitakoaren arabera jokatzea.

11. Euskal gizartean gehien bizi diren kezkak behar bezala jasoaz, giza duintasuna biztu nahiz babestu beharraren aurrean (pertsonen eta herrien hazkuntza indartu beharraren aurrean), sentibera izatea.

Honekin batera, kristau mezuak gizonaren nondik norakoaz diona kontutan harturik, bizitzeko denon eskubidea ekintza bidez errespetatzea, bizia hondatzera daraman oro arbuiatzea eta giza eskubideen gauzatze betea bultzatzea.

12. Norberarengan gizadiari eta izadi osoari buruzko estimazioa sortzea, hortarako mundu, historia eta gizakia osatzen dituen ikuspegi kristaua lagungarri dela.

Aldi berean, zientzien autonomia errespetatu, eta den guztiaren egiaz galde egiterakoan, zientzien esanak erlijioaren ikuspegiekin uztartzeko gai izatea.

13. Ingurunea errespetatzea, baita ondare kulturala, artistikoa eta erlijiosoa ere, eta gizakiaren atsegina, hazkuntza eta garapenerako iturri gisa aintzakotzat hartzea.

Honen jarraipenean, ondare hori guztia gorde eta aberasteko erantzukizuna belaunaldi gisa beren gain hartzea, hortarako gidari delarik kristautasunak natura eta kulturari deritzana.

3. EDUKINAK

1. MULTZOA: GIZAKIA MUNDUAN

A) Edukin kontzeptualak

1. Gizabidearen hainbat ikuspegi eta egitasmo aldietan zehar

– Aintzinateko humanismo klasikoa, Errenazimendu aldikoa, Ilustrazio garaiko giza irudia, Erromantizismoak moldatutako giza modeloa, gizabideak azken aldietan izan dituen ulerkera berriak: marxismoarena, existentziaren pentsalariena, hutsa eta esanahirik ezaren aldarrikatzaileena, postmoderniarena...; gure nondik norakoa ulergarri egiteko orduan, gizabanakoaren interesa edo gizartearena edota zoriaren indar erabakiorra ardatz nagusi hartzen dituzten ikuspegiak...

2. Gizaki guztiok ezinbestean ditugun kezkak

– Hil beharrak bizitzari egiten dion galdera, bakoitzaren askatasuna, giza duintasuna, norberatasuna, zorion egarria, egiazko beharrak eta hain beharrezko ez direnak, bizitzako ziurtasunak eta ilunak, erantzun betea jasotzen ez dituzten galderak, gizabatasun betearen bidean gizonezkoa eta emakumezkoa elkarren osagai izatea, kulturaz natura moldatu beharra, traszen-

tolerancia, solidaridad y paz.

10. Comparar motivaciones que inspiran actuaciones cristianas con otros valores y comportamientos perceptibles en el entorno social plural, y formular juicios fundamentados sobre situaciones y hechos tanto individuales como sociales.

Al mismo tiempo, tomar libre y responsablemente opciones propias y llevarlas a la práctica de forma coherente.

11. Sintonizar con las inquietudes más sentidas en la sociedad vasca, y mostrar sensibilidad por la promoción y defensa de la dignidad humana y por el desarrollo de las personas y de los pueblos.

En la misma línea, respetar activamente, desde el mensaje cristiano sobre el origen y destino del hombre, el derecho de todos a la vida, rechazando toda causa de degradación de la misma e impulsando la realización de los derechos humanos.

12. Generar actitudes de estima en torno a la realidad humana y cósmica como consecuencia de la concepción cristiana sobre el mundo, la historia y el hombre.

Al propio tiempo, respetar la autonomía de las ciencias y ser capaz de armonizar perspectivas científicas con una visión religiosa de la realidad.

13. Respetar el entorno natural, así como el patrimonio cultural, artístico y religioso, estimarlos como fuentes de disfrute y en cuanto recursos para el crecimiento y desarrollo humanos.

Por lo mismo, asumir la responsabilidad generacional de su conservación y mejora, aplicando criterios acordes con la estimación cristiana de la naturaleza y de la cultura.

3. CONTENIDOS

BLOQUE 1: EL HOMBRE EN EL MUNDO

A) Contenidos conceptuales

1. Imágenes del hombre y proyectos de humanidad a lo largo del tiempo

– Humanismo clásico, humanismo renacentista, el modelo humano de la Ilustración, imagen del hombre en el Romanticismo, interpretaciones marxistas, existencialistas, nihilistas, postmodernas, visiones individualistas, colectivistas, deterministas... de la existencia humana y de su destino.

2. Cuestiones que atañen a todas las personas de todas las épocas

– Importancia de la muerte para la vida del hombre, libertad, dignidad, ser personal, felicidad, necesidades reales y ficticias, seguridad y certeza, inseguridades y enigmas, existencia humana en la dualidad de hombre y mujer, cultura, apertura a lo trascendente, sentido de la vida...

dentziarako joera gero eta haruntzagokoa, bizitzaren zentzu edo esanahi betearen itxaropena...

3. «Giza neurriko bizi-kultura» baten ezaugarriak

– Elkar ulertzea eta arrazoimenezko konponbideak bilatzea helburu hartzen duen kultura

– Liskarbideak alde batera uzten eta gatazkak gainditzen dakien kultura

– Bizi-jakinduriaren kultura

4. Kristau fedearen eta azken esanahi bat eskatzen duten hainbat esperientzi eta galdekizunen arteko harremanak

– Biziaren sorburua, gizabizitza egitasmo jator baten hildotik eraman beharra, bakoitza egiazki nor den erabaki beharra, osasunaren ederra eta iheskortasuna, bizitzan gertatzen diren ezbeharrak, heriotzaren itzala, itxaropenaren ausardia, maitasunaren geroa, bizi-poza, gainetik kendu ezinezko errua, erantzukizunaren seriotasuna, konfidantzarik gabe ezin bizi izana, frakaso mingarria, biziaren betea dastatu nahia, jaia eta festa...

– Gogorkeriaren nagusitasuna, haserreak galdutako elkarbizitzaren garraztasuna, zuzenbidea gizarte-bizitzaren oinarri, etsai direnen adiskidetzea, bakea, aurrerabideak, gizartearen etorkizun baliobikoa: batetik inoiz ez izandako erreztasunak dituena, bestetik berriz ezinbestekoak omen diren giza kostu haundiak...

B) Prozedurazko edukinak

1. Jakingarriak biltzeko

– Inguruan sumatzen diren arazoei buruz berriak zuzenean bildu, hortarako bizitza ongi ezagutzen duten eta eskura dauzkagun gizon-emakumeekin elkar hizketa eginez. Berri emaile izan zakizkiguke besteren artean: etxekoandrea, edadeko pertsona, bertako apaiza, gizabidea helburu duten hainbat erakundeetako laguntzaileak, etab.

2. Bildutakoa lantzeko

– Ezinbestean ajola zaizkigun kezkak azaltzen dituzten literatur testu garrantzizkoak aztertu.

– Giza bizitzaren ahalak eta ezinak agerian jartzen dituzten hainbat ederlan soseguz hausnartu (adib.: Oteizaren apostoluak, Picassoren Gernika, Rodinek egindako pentsalaria, etab.)

– Bizi-egoeraz jabetzeko eta bai gure egokiera, hutsune edo geroko utzita dauzkagun arazo horiek argi ikusteko, sakonera barneratu.

3. Landutakoak aditzera emateko

– Azalpen modu desberdinak erabiliaz, giza arazo kezkagarrien berri eman: idatziz, argazkiak eginez, margotuz, ots-grabazio magnetikoa erabiliz, filmak argituz, etab.

C) Jarrerazko edukinak

1. Estimagarriaz konturatzeko

– Hausnar arazteko ariketen bidez, bihotz barruan bilduz eta adi-adi egoteko gaitasuna indartuz, isiltasunaren mesedea eta elkarri entzutearen ongia ezagutzeko bidean jarri.

3. Perspectivas de una «cultura humana del vivir»

– Cultura del mutuo entendimiento y de la búsqueda de consensos racionales.

– Cultura de la supresión y superación de conflictos.

– Cultura de la sabiduría de vida.

4. La fe cristiana en correlación mutua con experiencias y cuestiones que reclaman un sentido último

– Origen de la vida, proyecto de vida, identidad personal, salud, enfermedad, desgracia, muerte, esperanza, amor, miedo, gozo, culpa, perdón, dolor, responsabilidad, confianza, fracaso, entusiasmo, fiesta...

– Violencia, crispación en las relaciones, justicia, reconciliación, guerra, paz, progreso, futuro, evolución incierta de la sociedad con sus grandes posibilidades, sus nuevos retos y sus costos humanos y naturales que a menudo suelen ser presentados como inevitables...

B) Contenidos procedimentales

1. Información

– Búsqueda de información directa sobre problemática humana perceptible en el entorno mediante entrevistas a personas abordables y suficientemente competentes: ama de casa, persona de edad, párroco del lugar, personal de centros de acogida a necesitados...

2. Elaboración

– Análisis de textos literarios relevantes que expresen cuestiones que de manera inevitable conciernen a las personas, incluídos los lectores.

– Acercamiento meditativo a plasmaciones artísticas que expresen la condición humana en sus grandezas y en sus miserias. (p. ej.: los apóstoles de Oteiza abiertos en canal, el Gernika de Picasso, el Pensador de Rodin, etc.)

– Introspección en la experiencia propia y diagnóstico personal del momento existencial que se está viviendo con sus posibilidades, aspectos deficitarios y cuestiones que no han adquirido aún su debido tratamiento.

3. Comunicación.

– Presentación de determinados sectores de problemática humana mediante utilización de diversos recursos : escritura, fotografía, pintura, grabación, filmación, etc.

C) Contenidos actitudinales

1. Percepción.

– Actitud positiva y dispuesta al cultivo del silencio y de la escucha, mediante ejercicios de meditación, de concentración y de apertura de las capacidades perceptivas.

– Barru barrutik igotzen zaizkigun susmur isilak edota inguruko egoeretatik etortzen zaizkigun garrasi otsak entzun, gure erantzuna jaso eta gure erantzukizuna astindu nahi duten deialdiak baitira.

2. Estimagarri dena balioztatzeko

– Giza neurriko bizi-kultura eta elkarbizitza benetakoa gogoko izan.
– Biziaz nahiz elkarbizitzaz pozteko eta aldaezinak bere horretan onartzeko edo gisaz eramateko aldietan zehar eskeini zaizkigun irakaspenak gogoz jaso eta ezagutzen saiatu.

– Elkar hizketa estimatu, giza harreman modu gorena denez eta egiazko erlijiotasunaren maila berekoa.

3. Baliozko dena norbereganatzeko

– Bizitzan sortzen zaizkigun kezka horiei aurre egiteko kemena izan, arinkerietara ihes egin gabe eta pentsatzeko nekeari eutsiz.
– Neurria gogoko izan eta bizibide duina eramaten jakin, egiazkoak diren beharkizunak betetzen saiatuz.

2. MULTZOA: BILA GABILTZAN HARTAZ ERLIJIOEK DIOTENA

A) Edukin kontzeptualak

1.Erlijio nagusienen barne muinezko esperientzia (indar izkutu batena, jainkotasunarena, aita bihotza duen norbaitena...)

– Hinduismoa eta Budismoa.
– Islam, Vatikano II.k estimazioz aipatu duen erlijio hori.
– Judutar erlijioa, estu-estu lotuta baitago honekin Itun Berriko herria.
– Taoismoa, Txina aldeko erlijioak eta hauek agertzen dituzten berezitasunak.
– Erlijioen sortzaile izan direnen bizibideak, hauen esperientzia garrantzitsuenak; erlijio bakoitzaren sorrera-baldintzak, bai lekuko eta bai aldikoak; erlijio bakoitzak dituen liburu sakratuak; munduaz haruntzakoa nolabait ere ulergarri egiteko erlijio bakoitzak ematen dituen argibideak; erlijio horiek aldietan zehar izan duten eragina eta gaurregun duten zabalkundea...

2. Erlijioek historian zehar bete dituzten eginkizun guztiz beharrezkoak gizabiderako nahiz elkarbizitzarako

– Gizabanakoaren nahiz gizartearen nortasuna eraikitzerakoan; jardunbideak argitzerakoan; nekez eraman daitezkeen gaitzak eta oinazeak modu baikorrean gainditzen laguntzerakoan; gizartea elkartasunean biltzerakoan; errealitearen sakoneko ikuspen orobateratzaile eta zentzuzkoa sortzerakoan; gizaneurriko ez diren hainbat gertaera eta antolamenduen aurka protesta bizia egiterakoan...

3. Erlijiotasuna, hain gizamailako den portaera berezi hori

– Sagaratuaren esparrua, «misterioa» edo beste era batera esateko: errealitatearen azken egia izkutua; misterioaren bitartekotasunak; erlijio jarreraren egitura,

– Escucha atenta de las apelaciones calladas o estridentes que tienen su origen en el interior de la persona o bien en situaciones que reclaman atención y responsabilidad.

2. Aprecio

– Estima de una cultura realmente humana del vivir y del convivir con los demás.
– Interés por conocer mensajes brindados al hombre a lo largo del tiempo, a fin de que sea capaz de gozar de su vida y de la convivencia y pueda también aceptar y sobrellevar dignamente lo que es así y no puede ser de otra manera.
– Estima del diálogo como relación plenamente humana y como dimensión eminentemente acorde con la auténtica religiosidad.

3. Respuesta

– Aceptación valiente del reto que supone el exponerse a problemas de la vida, sin eludirlos buscando refugio en ofertas de consumo.
– Cultivo de un estilo de vida digno y sobrio, regulado por la satisfacción de necesidades reales.

BLOQUE 2: BUSQUEDA HUMANA Y EXPERIENCIA DE LAS RELIGIONES

A) Contenidos conceptuales

1. Las principales religiones, en cuanto articulaciones de la experiencia de una fuerza misteriosa, de la divinidad e incluso de un Padre

– Hinduísmo y Budismo.
